

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 392/2021 Erabakia, ekainaren 22koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean kultura erakusteko eta zabaltzeko programak eta jaialdiak garatzeko 2021eko ekitaldiko deialdiari**

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuak (Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen abuztuaren 2ko 41/2019 Foru Dekretuaren bidez aldatua) ezartzen duenez, Kultura Zuzendaritzaren eginkizunak dira kultura beharrak aztertzea eta neurri egokiak proposatzea, arteak nahiz kultura ekimenak bultzatu, finkatu eta garatzeko, bai eta kultura ekintza eta kulturaren zabalkundea sustatzeko deialdiak eta laguntzak programatzea eta ebaluatzea ere.

Eskumen horiek baliatuta, Kultura Zuzendaritzak esparru egokia garatu du Arabako kultura sektorea biziberritzeko, sustatzeko eta hari laguntzeko, dirulaguntzen urteko deialdiak onetsiz.

Horiek horrela, dirulaguntza eman nahi du Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean kultura elkarteek, kultura enpresek, udalek eta kuadrillek sustatutako kultura erakustaldi eta hedapeneko programak eta jaialdiak garatzen laguntzeko 2021ean.

Horretarako, nahitaezkoa da berariazko esparru bat ezartzea, sailak ematen dituen dirulaguntzen xede diren kultura programak arautzeko.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bileran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean 2021eko ekitaldian kultura erakusteko eta zabaltzeko programak eta jaialdiak gauzatzeko dirulaguntzen deialdia, zeinaren kopia erabaki honen I. eranskinean baitago.

Bigarrena. Onestea, batetik, deialdiaren eskabide eredia, erabaki honen II. eranskinean dagoena, eta, bestetik, justifikazio kontu sinplifikatuaren eredia, III. eranskinean dagoena.

Hirugarrena. Deialdi hori honako hauek arautzen dute: Kultura eta Kirol Sailaren lehiaketa bidezko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak (Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa, 2019ko azaroaren 20ko 134. ALHAOn argitaratua, martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuaren bidez aldatua), Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Dekretua eta erabaki honi atxikitako eranskinak.

Laugarrena. Erabaki honen bidez araututako laguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 70108.7200.4790001 "Plan A: Laguntza kultura arloari" partidaren kargura ordainduko dira, era honetan:

– Profesional autonomoek, kultura sektoreko enpresek eta kultura elkarteek sustatutako programak eta jaialdiak: 150.000,00 euro; zorpekin erreferentzia: 105.2153.

– Udalek eta kuadrillek sustatutako programak eta jaialdiak: 50.000,00 euro; zorpekin erreferentzia: 105.2154.

Bosgarrena. Kultura Zuzendaritzaren proposamena aztertu ondoren, organo eskudunak bidezko ebazpena emango du, gehienez ere, sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuta. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Seigarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileei banan-banan, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan arautzen duenarekin.

Zazpigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Zortzigarrena. Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia eman duen organoaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatutakoaren arabera, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bederatzigarrena. Ebazpen honen aurreko xedapenean xedatutakoa gorabehera, eta bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan xedatutakoarekin, administrazio publikoek ebazpena Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegien aurrean soilik aurkaratu ahal izango dute, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 22a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*

**ANA M. DEL VAL SANCHO**

*Kultura zuzendaria*

**M. INMACULADA SÁNCHEZ ARBE**

## I. ERANSKINA

### DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN ETA TREBIÑUKO ENKLABEAN KULTURA ERAKUSTEKO ETA ZABALTZEKO PROGRAMAK ETA JAIALDIAK GARATZEKO, 2021EKO URTEAN

#### 1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean kultura elkarteek, kultura enpresek, udalek eta kuadrillek sustatutako kultura erakustaldi eta hedapeneko programak eta jaialdiak garatzen laguntzea 2021ean.

Hori guztia bat dator Kultura eta Kirol Sailaren norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zk.) xedatutakoarekin, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatua (2021eko martxoaren 10eko ALHAO, 28. zk.).

Bi dirulaguntza modalitate ezartzen dira:

1. Araban eta/edo Trebiñuko enklabean egingo diren kultura erakustaldi eta hedapeneko programei eta jaialdiei laguntzeko dirulaguntzak, autonomoek, kultura sektoreko enpresek eta kultura elkarteek sustatuak.

2. Udalek (Gasteizkoa kanpo) eta kuadrillek sustatuta egingo diren kultura erakustaldi eta hedapeneko programei eta jaialdiei laguntzeko dirulaguntzak.

#### 2. artikulua. Laguntzak emateko prozedura

Laguntzak norgehiagoka bidez emango dira. Dirulaguntzak emateko, aurkeztutako eskabideak alderatzen dira, eskabideen arteko hurrenkera ezartzeko, ezarritako balioespen irizpideen arabera. Balioespen handiena lortu dutenei emango zaie dirulaguntza, baina betiere gainditu gabe deialdian ezarritako aurrekontu zuzkiduraren zenbatekoa.

#### 3. artikulua. Dirulaguntzen aurrekontu egozpena, zenbatekoa eta muga

1. Deialdiaren zenbateko 200.000,00 eurokoa da.

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21.2 artikulua xedatutakoaren arabera, beharrezko bada, hasierako zuzkiduraren ehuneko 10erainoko zenbateko gehigarria ezarri ahalko da, beste deialdi bat egin gabe, betiere kreditu egoki eta nahikoa badago.

2. Honela banantzen da deialdiaren zenbatekoa:

- 1. modalitatea: autonomoek, kultura sektoreko enpresek eta kultura elkarteek sustatutako programak eta jaialdiak: 150.000,00 euro. Beharrezko bada, hasierako zuzkiduraren ehuneko 10erainoko zenbateko gehigarria ezarri ahalko da.

- 2. modalitatea: udalek eta kuadrillek sustatutako programak eta jaialdiak: 50.000,00 euro. Beharrezko bada, hasierako zuzkiduraren ehuneko 10erainoko zenbateko gehigarria ezarri ahalko da.

Oinarri orokor arautzaileen 7.1 apartatua betez (Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua), funtsak bi modalitateen artean banatu ahal izango dira, dagokion ebaipenaren bidez, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

3. Erabaki honen bidez araututako laguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastuen aurrekontuko partida honen kargura ordainduko dira: 70108.7200.4790001 "A Plana: Laguntza kultura arloari".

4. Diruz lagun daitekeen ehuneko eta gehieneko zenbatekoa.

Deialdi honetan, diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoa eragiketa hau egitetik lortzen den emaitza izango da: proiektuaren aurrekontu osoa ken deialdi honen arabera diruz lagundu ezin diren gastuak.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko, balioetsi eta gero 800 eurotara heltzen ez diren eskaerak.

4.1 Profesional autonomoek, kultura sektoreko enpresek eta kultura elkarteek sustatutako programa eta jaialdien kasuan, emandako dirulaguntzak ezin izango du gainditu eskatutako zenbatekoa, ez eta diruz lagun daitekeen programaren aurrekontu osoaren ehuneko 75 ere, eta erakunde eskatzaileak ziurtatu beharko du gainerako ehuneko 25a eskura daukala. Nolanahi ere, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 12.000 eurokoa izango da erakunde bakoitzeko, eta programa bana aurkeztu ahal izango dute eskatzaileek.

4.2 Udalek eta kuadrillek sustatutako programa eta jaialdien kasuan, emandako dirulaguntzak ezin izango du gainditu eskatutako zenbatekoa, ez eta diruz lagun daitekeen programaren aurrekontu osoaren ehuneko 60 ere, eta erakunde eskatzaileak ziurtatu beharko du gainerako ehuneko 40a eskura daukala. Nolanahi ere, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 5.000 eurokoa izango da erakunde bakoitzeko, eta programa bana aurkeztu ahal izango dute eskatzaileek.

#### **4. artikulua. Erakunde onuradunak**

Erakunde onuradunek Arabako Lurralde Historikoan eta/edo Trebiñuko enklabean izan beharko dute egoitza soziala eta fiskala.

1. Erakunde onuradun izan daitezke:

a. Oinarri hauetako lehenengo artikuluan ezarritako 1. modalitatearen kasuan, profesional autonomoak, kultura sektoreko enpresak eta kultura elkarteak.

Federazioetan, konfederazioetan edo antzekoetan elkartutako kultura elkarte eta erakundeek ez dute nor bere aldetik edo beste erakunde bateko kide gisa aurkezterik deialdi honetan. Egoera horrek automatikoki ekarriko luke egoera horrekin identifikatutako eskaera guztiak ez onartzea.

b. Oinarri hauetako lehenengo artikuluan ezarritako 2. modalitatearen kasuan, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeako udalak eta kuadrillak, Gasteizko Udala eta hura parte den kuadrilla izan ezik.

2. Kanpo utzitako erakundeak:

a. Elkarteak, taldeak eta antzekoak, helburuen artean kultura izaerako jarduerak lehentasunik ez dutenean eta burutzen dituzten jarduerak kultura izaerakoak ez direnean.

b. Auzo elkarteak, gazte elkarteak, aisialdikoak eta denbora librekoak, bai eta hezkuntzarekin eta/edo prestakuntzarekin zerikusia duten guztiak ere, hala nola gurasoen elkarteak eta ikasleen eta ikasle ohien elkarteak.

c. Fundazioak.

d. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren 2021eko programazioan jasotako edo sail horren babesa duten ekimenak egiten dituztenak.

e. Deialditik kanpo geratzen dira 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren klausulan jasotzen diren egoeretan dauden erakundeak. Dekretu horrek onetsi zituen Kultura eta Kirol Sailak nor-gehiagoka bidez emango dituen dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak eta Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatu zuen.

3. Aipatutako erakunde onuradunek, herri administrazioek izan ezik, egunean izan beharko dituzte zerga arloko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, bai dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik, bai dirulaguntza ordaindu aurretik. Kultura Ekintza Zerbitzuak egiaztatuko du erakunde eskatzaileak betebeharrak horiek egunean izateko baldintzak betetzen dituela, salbu

eta erakunde horrek horren aurka egiten badu; kasu horretan, egitate hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (abenduarien 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoak, aldatua, azken xedapenetatik hamabigarrenean).

4. Pertsona juridikoak badira, legez eraturata egon beharko dute.

#### **5. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen programa eta gastuak**

1. Dirulaguntza jaso ahalko dute Arabako Lurralde Historikoan eta/edo Trebiñuko enklabean garatu eta egingo diren izaera irekiko kultura erakustaldi eta hedapeneko programek eta jaialdiak.

2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozen, behar-beharrezkoak diren, merkatuko balioa baino gehiago ez daukaten eta 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 15era arte egiten direnak 2021eko ekitaldian.

b. 1. modalitatean (profesional autonomoek, kultura sektoreko enpresek eta kultura elkarteek sustatutako programak eta jaialdiak) bakarrik lagundu ahal izango dira diruz hauek, dirulaguntza lortzeko eta justifikatzeko ondorioetarako:

- Gastu orokorrak edo zeharkakoak: zeharkako gastu izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuaren ehuneko 10, gastu horiek justifikatu beharrik gabe, eta kostu horiek jarduera programa benetan egiten den aldiari badagozkio. Hori guztia Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 83.3 artikuluan araututakoaren arabera.

- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ), baldin eta erakundeak ezin badu berreskuratu.

3. Diruz lagundu ezin diren gastuak:

a. Dirulaguntza jasotzeko edota jaso izana justifikatzeko, dirulaguntza esleitzeko ebazpenak aurkakoa adierazi ezean, ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko hauek:

- Ordezkaritza, protokolo, opari gastuak eta antzekoak.

- Berbenek eta ospakizunekin, erromeriekin eta herriko jaiekin lotutako gainerako ekitaldiak eragindako gastuak, Arabako tradizioko herri partaidetzako kultura ekintzak izan ezik.

- Aisialdiko eta/edo entretenimenduko jarduerak, jolas eta jai jarduerak eta kirol jarduerak eragindako gastuak, bai eta berriaz kulturalak ez diren jarduerak sortutakoak ere.

b. 2. modalitatean (udalek eta kuadrillek sustatutako programak eta jaialdiak), aurreko apartatuan aipatutakoez gain, honako gastu hauek ere ez dira diruz lagunduko:

- Soldatapeko langile gastuak.

- Gastu orokorrak edo zeharkakoak.

- Bidaia, egonaldi eta publizitate gastuak.

#### **6. artikulua. Eskabideak aurkeztea**

1. Eskabideak betetzeko eskuragarri dagoen eredu espezifikoa egokitu beharko zaizkio.

2. Eskaerak Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari zuzenduko zaizkio eta toki hauetako batean aurkeztu beharko dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean.

- Gasteiz, Guardia eta Laudioko Ogasunaren bulegoen erregistroan.

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozeinetan.

Nolanahi ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 14.2 artikuluan xedatutakoa betez, betiere honako hauek behartuta egongo dira nahitaez telematikoki aurkeztera, egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen berariazko izapidearen bidez ([egoitza.araba.eus/eu/-/kultura-eta-jaialdiak-erakutsi-eta-zabaltzeko-programa-garatzeko-diru-laguntzak](http://egoitza.araba.eus/eu/-/kultura-eta-jaialdiak-erakutsi-eta-zabaltzeko-programa-garatzeko-diru-laguntzak)): pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko entitateak; diharduten jarduera profesionalean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak, bai eta jarduera hori dela eta egin behar dituzten izapideetarako ere; eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkari direnak.

3. Eskabidea hainbat erakundek batera aurkezten badute, elkarteko kide bakoitzak bere gain hartutako gauzatze konpromisoak zehaztu beharko dira, bai eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, erakunde guztiak izanik onuradun. Era berean, pertsona edo erakunde bat izendatu beharko da elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar gisa, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiarekin, eta harekin ezagutuko dira eskaera izapidetzetik eratorritako gainerako jarduketak.

### **7. artikulua. Aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko epea hogei egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak aurkezteko azken eguna baliogabea bada, epealdia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da. Edonola ere, aurkezteko azken eguna 14:00etan amaituko da.

### **8. artikulua. Eskatutako dokumentazioa**

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Kultura programaren proiektua, balioespen irizpideak osatzen dituzten alderdi guztiak jasotzen dituena (oinarri hauetako bederatzigarren artikulua).

Ezinbestekoa izango da eskabideari erantsitako proiektua oinarri hauetan ezarritako epean eta moduan aurkeztea. Eskabidea aurkezte hutsak, proiektuarekin batera joan gabe, izapidea ez onartzea ekarriko du.

2. Administrazio agiriak:

2.1 Lehenengo modalitatean parte hartuz gero, hau da, profesional autonomoek, kultura sektoreko enpresek eta kultura elkarteek, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Hala badagokio, BEZa ordaintzetik salbuetsita egotearen ziurtagiria, dagokion zerga administrazioak emana.

- Hala badagokio, inplikaturako eragileen ziurtagiria, programa garatzen lagundu dela egiaztatzen duena (ezarritako lankidetzak sareak).

Gainera, eskabidea elektronikoki aurkeztu ez bada, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren kopia, profesional autonomoaren kasuan.

- Erakundearen ordezkariaren egiaztatzen duen agiria.

2.2. Bigarren modalitatean parte hartuz gero, udalek eta kuadrillek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Udaleko idazkaritzak edo kontuhartzaitzak jaulkitako ziurtagiria, 2021erako kulturako aurrekontu partida jasotzen duena (euskara, gazteria, kirolak, hezkuntza, gizarte ekintza eta jai eta jolasarako herri ordezkariak: kabalgatak, Olentzero barne).

- Erakundearen organo eskudunaren erabakiaren ziurtagiria, erakundeko idazkariak egina, gastu eskaera eta finantzaketa partziala baimentzen duena, eskaerak aurkezteko epea bukatu aurretik hartua.

Hainbat udalek batera aurkeztutako edo kuadrillek aurkeztutako eskaerei dagokienez, programan parte hartu duten udal guzti-guztiek erantsi behar dute ziurtagiri hori.

- Era berean, udalen talde batek aurkeztutako eskaeren kasuan, taldearen ordezkari gisa jarduten duen pertsonari edo erakundeari emandako ahalordea egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Kultura Ekintza Zerbitzuak egokitzat jotzen duen behar beste agiri eskatu ahalko dizkie erakunde eskatzaileei aurkeztutako eskabidea behar bezala balioetsi eta ebazteko.

Eskabidean edo horrekin batera aurkezten diren administrazio agirietan akatsik egongo baltz edo osorik bete gabe egongo balira, hamar egun balioduneko epea emango zaie erakunde interesdunei antzemandako akatsak konpontzeko. Epe hori igaro eta akatsak konpondu ezik, eskatzaileak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da; horretarako, ebazpena emango da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik.

### 9. artikulua. Balioespen irizpideak

Aurkeztutako proiektuak balioesteko, oinarri hauetako 1. artikuluan ezarritako modalitate bakoitzerako jarraian adierazten diren irizpideak eta baremoak hartuko dira kontuan.

1. modalitatea. Araban eta/edo Trebiñuko enklabean egingo diren kultura erakustaldi eta hedapeneko programen eta jaialdien balioespen irizpideak, autonomoek, kultura sektoreko enpresek eta kultura elkarteek sustatuak.

I. 1. balioespen fasea: fase honetan balioetsiko da aurkeztutako kultura programa deialdi honen helburura egokitzen den. 75 puntu, gehienez.

1. Programak Arabako kultura eskaintzari egindako ekarpena. 20 puntu, gehienez.

Proiektua kalitateko, kultura eragineko eta gizarte eragineko parametroetan egiteak Arabako kultura eskaintzaren testuinguruan zer esan nahi duen balioetsiko da, banaketa honen arabera:

a. Proiektuaren kalitate kulturala. 8 puntu.

b. Kultura eragina garatzen den herrietan bertan eta kanpo. 5 puntu.

c. Eragin soziala: proiektuaren onuradunak, nori zuzenduta dagoen. 5 puntu.

d. Kanpoko eta barruko komunikazioa. 2 puntu.

2. Programaren izaera berritzailea. Proposamenaren originaltasuna eta berritasuna, eta udalerrian edo kuadrillan antzeko programarik ez egotea. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

IZAERA BERRITZAILEA	HAZTATZEA
Altua	5 puntu
Ertaina	2,5 puntu
Adierazgarria ez adierazkorra	0 puntu

3. Kultura proposamenak denboran zehar izan duen ibilbidea eta finkapena. Irizpide horrek laguntzaren xede den jardueraren edizio kopurua balioetsiko du, taula honen arabera. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

EDIZIO KOPURUA	HAZTATZEA
10 edizio baino gehiago	5 puntu
4 eta 10 bitarteko edizio	3 puntu
3 edizio	1 puntu

4. Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa. Gehienez 15 puntu, honela banatuta:
- Proiektuaren oinarritzea. Lortu nahi diren helburuen deskribapen koherente eta argia. 4 puntu.
  - Jardueren metodologia eta plangintza, gauzatze egutegia barne. 4 puntu.
  - Jardueren zehaztapen maila. 2 puntu.
  - Jarraipena eta ebaluazioa. 4 puntu.
  - Beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak esplizituki zehaztea. 1 puntu.

5. Proposamenaren bideragarritasuna: proposatutako programaren eta horretara bideratutako aurrekontuaren arteko oreka (programaren kalitate-prezioa). Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

BIDERAGARRITASUNA	HAZTATZEA
Egokia	5 puntu
Ertaina	2,5 puntu
Eskasa	0 puntu

6. Programa garatuko den herrian edo herrietan ezarritako lankidetza sareak zehaztea. Iri-zpide hori balioetsiko da soilik inplikaturako agenteek lankidetza egiaztatzen duen gutuna edo adierazpena aurkezten badute. Gehienez, 5 puntu.

LANKIDE KOPURUA	HAZTATZEA
Herriko 3 lankide baino gehiago	5 puntu
Herriko 3 lankide	3 puntu
Herriko 2 lankide	2 puntu
Herriko lankide 1	1 puntu

7. Programa garatzeko lurralde eremua. Gehienez 20 puntu. Puntuen banaketa eskala honen arabera egingo da:

- Gasteizko udalerrian bakarrik egindako programak. 5 puntu.
- Udal esparrua gainditzen duten programak. 10 puntu.
- Egoitza soziala Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabeen (eta Gasteizko udalerritik kanpo) duten erakundeek bultzatutako eta Gasteizko udalerritik kanpo egiten diren programak. 10 puntu.
- Biztanle gutxiko edo biztanle sakabanatutako udalerrietan egiten diren programak. 10 puntu.

Atal honetan puntuazioa lortzeko, programaren ehuneko 33, gutxienez, udalerrri hauetako batean garatu beharko da.

Deialdi honen ondorio bakarrerako, biztanle gutxiko eta/edo sakabanatutako udalerrriak izango dira 1.000 biztanletik behera dituztenak edo 1.000 eta 3.000 biztanle artekoak, baldin eta 10 biztanleria gunez edo gehiagoz osatuta badaude. INEren 2020ko urtarrilaren 1eko Biztanleria Unitatearen Errolda Jarraituaren Biztanleriari buruzko datuen arabera, hauek dira:

KUADRILLA	UDALERRIA	HERRIGUNEEN DATUAK	BIZTANLERIA GUZTIRA
AÑANA	Añana	2	149
	Armiñon	3	223
	Berantevilla	8	463
	Erriberagoitia	25	782
	Kuartango	20	385
	Lantaron	12	877
	Gaubea	30	986
	Zambrana	4	416
Guztira		104	4.281



KUADRILLA	UDALERRIA	HERRIGUNEEN DATUAK	BIZTANLERIA GUZTIRA
ARABAKO LAUTADA	Asparrena	10	1.623
	Barrundia	14	881
	Burgelu	6	608
	Iruraiz-Gauna	11	532
	Donemiliaga	15	706
	Zalduondo	1	185
Guztira		57	4.535
AIARALDEA	Aiara	24	2.968
Guztira		24	2.968
GORBEIALDEKO KUADRILLA	Arratzua-Ubarrundia	11	984
	Urkabustaiz	10	1.386
	Zigoitia	18	1.749
	Zuia	13	2.300
Guztira		52	6.419
GUARDIA - ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA	Mañueta	1	294
	Bilar	1	330
	Kripan	1	178
	Lantziego	3	709
	Lapuebla de Labarca	1	865
	Leza	1	211
	Moreda Araba	1	211
	Navaridas	1	194
	Samaniego	1	315
	Eskuernaga	1	274
	Iekora	1	270
	Guztira		13
MENDIALDEA	Arraia-Maeztu	18	852
	Bernedo	13	507
	Harana	4	218
	Lagran	3	162
	Urizarra	6	262
Guztira		44	2.001
TREBIÑUKO ENKLABEA	Argantzón	2	502
	Trebiñu	47	1.363
Guztira		49	1.865
<b>Denak, guztira</b>		<b>343</b>	<b>25.920</b>

Aurreko irizpideen balioespenean gutxienez 40 puntu lortzen dituzten proiektuak balioespenearen 2. fasera igaroko dira. Gainerako proiektuak baztertu egingo dira.

II. 2. balioespen fasea: fase honetan programaren finantzaketa maila eta zeharkako irizpideak balioetsiko dira, hala nola hizkuntza ofizialen erabilera eta genero berdintasunaren ikuspegia. Gehienez 25 puntu.

1. Programaren finantzaketa maila. Gehienez 10 puntu.

Erakundeek programaren bideragarritasuna indartzeko helburuarekin kanpo finantzaketa lortzeko egin duten ahalegina balioetsiko da. Finantzaketa maila hori ratio hau da: aurrekontuan agertzen diren diru sarreraren kontzeptu guztien batura, zenbaketa horretatik kanpo utzita Arabako Foru Aldundiari eskatzen zaion ekarpena, aurrekontuko diru sarrera guztiekin zatitzea.

Puntuazioa kalkulatzeko, honela jokatu da: finantzaketa maila handiena duen programari 10 puntu emango zaizkio; gainerako puntuak hiruko erregela baten bidez banatuko dira. Lortutako puntuazioak dezimalak baditu, hurbilen dagoen zenbaki osora biribilduko da.

Programa guztiek, gutxienez, aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 25eko finantzaketa propioa izan beharko dute. Finantzaketa propiotzat jotzen da erakundeak bere baliabideetatik eta hainbat iturri publiko edo pribatutatik lortzea aurreikusten duena, zenbateko horretatik kanpo utzita Arabako Foru Aldundiari eskatzen zaion ekarpena.

2. Euskara erabiltzea programaren garapenean. 5 puntu.

Bost puntuak emango dira baldin eta, euskara bera proiektuaren funtsezko elementua izanik, proiektu osoa euskaraz garatzen bada. Bestela, ez da punturik emango.

3. Genero berdintasunaren ikuspegia sartzeari programaren helburu eta ekintzen artean. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

a. Programan edo jaialdian sartzeari emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko helburu eta ekintza zehatzak. 2 puntu.

b. Programa gauzatzeko emakumeak kontratatzea eta parte hartzea profesionalki. 2 puntu.

c. Berdintasuneko beste neurri batzuk. 1 puntu

4. Programan tolerantzia eta kultura aniztasunaren ezagutza sustatzen duten helburuak eta ekintzak sartzeari: 5 puntu.

a. Argi eta garbi aipatzen dira. 5 puntu.

b. Zenbait neurri dago. 3 puntu.

c. Ez dago neurririk. 0 puntu.

Dirulaguntza emateko proposamenean, bi faseen artean gutxienez 65 puntuko balioespena lortzen duten eskabideak bakarrik sartuko dira.

Bi faseetan lortutako irizpideen puntuen baturak guztizko kopuru unitarioa emango du puntuka, eta deskribatutako eskalara eramanda, dirulaguntza kalkulatzeko oinarritzat hartutako aurrekontuaren arabera esleitu beharreko dirulaguntzaren ehunekoa adieraziko du.

Balioespen handiena lortu duten erakundeei emango zaie dirulaguntza, betiere deialdian ezarritako aurrekontu zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

PUNTU KOPURUA	DIRULAGUNTZAREN EHUNEKOA
0tik 64ra	0
65etik 75era	65
76tik 100era	75

2. modalitatea: Udalek eta kuadrillek sustatutako programen eta jaialdien balioespen irizpideak:

1. Programak Arabako kultura eskaintzari egindako ekarpena. Gehienez, 20 puntu.

Proiektua kalitateko, kultura eragineko eta gizarte eragineko parametroetan egiteak Arabako kultura eskaintzaren testuinguruan zer esan nahi duen balioetsiko da, banaketa honen arabera:

a. Proiektuaren kalitate kulturala. 8 puntu.

b. Kultura eragina garatzen den herrietan bertan eta kanpo. 5 puntu.

c. Eragin soziala: proiektuaren onuradunak, nori zuzenduta dagoen. 5 puntu.

d. Kanpoko eta barruko komunikazioa. 2 puntu.

2. Programaren izaera berritzailea. Proposamenaren originaltasuna eta berritasuna, eta udalerrian edo kuadrillan antzeko programarik ez egotea. Gehienez 5 puntu.

IZAERA BERRITZAILEA	HAZTATZEA
Altua	5 puntu
Ertaina	2,5 puntu
Adierazgarria ez	0 puntu

3. Kultura proposamenak denboran zehar izan duen ibilbidea eta finkapena. Irizpide horrek laguntzaren xede den jardueraren edizio kopurua balioetsiko du, taula honen arabera. Gehienez 5 puntu.

EDIZIO KOPURUA	HAZTATZEA
10 edizio baino gehiago	5 puntu
4 eta 10 edizio bitartean	3 puntu
3 edizio	1 puntu

4. Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa. Gehienez 15 puntu, honela banatuta:

- Proiektuaren oinarritzea. Lortu nahi diren helburuen deskribapen koherente eta argia. 4 puntu.
- Jardueren metodologia eta plangintza, gauzatze egutegia barne. 4 puntu.
- Jardueren zehaztapen maila. 2 puntu.
- Jarraipena eta ebaluazioa. 4 puntu.
- Beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak esplizituki zehaztea. 1 puntu.

5. Proposamenaren bideragarritasuna: proposatutako programaren eta horretara bideratutako aurrekontuaren arteko oreka (programaren kalitate-prezioa). Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

BIDERAGARRITASUNA	HAZTATZEA
Egokia	5 puntu
Ertaina	2,5 puntu
Eskasa	0 puntu

6. Zenbait udalek batera edo kuadrilla batek sustatu dituzten programak. Bi kasuetan, jarduerak udalerrri batean baino gehiagotan egin beharko dira. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

- 3 udalerrrik baino gehiagok edo kuadrilla batek sustatutakoak. 3 puntu
- Hiru udalerrrik sustatutakoak. 2 puntu.
- Bi udalerrrik sustatutakoak. 1 puntu.

7. Udalaren edo kuadrillaren eta tokiko elkarten eta inplikaturako gainerako kultura eragileen arteko partaidetza eta koordinazioa, bai proposatutako programa diseinatzen, bai kudeatzen eta gauzatzen. Gehienez 10 puntu.

- Hiru eragile edo gehiagorekin. 10 puntu.
- Bi eragilerekin. 5 puntu.
- Eragile batekin. 2 puntu.

8. Biztanle gutxiko edo biztanle sakabanatutako udalerrietan egiten diren programak. 10 puntu.

Atal honetan puntuazioa lortzeko, programaren ehuneko 33, gutxienez, udalerrri hauetako batean garatu beharko da.

Deialdi honen ondorio bakarrerako, biztanle gutxiko eta/edo sakabanatutako udalerriak izango dira 1.000 biztanletik behera dituztenak edo 1.000 eta 3.000 biztanle artekoak, baldin eta 10 biztanleria gunez edo gehiagoz osatuta badaude. INEren 2020ko urtarrilaren 1eko Biztanleria Unitatearen Errolda Jarraituaren Biztanleriari buruzko datuen arabera (Ikus 1. modalitateko taula, 7.d apartatua).

9. Inbertsio ahalegina kulturean. Gehienez 10 puntu.

Hori balioesteko, udalerriak kulturean duen aurrekontua (euskara, kabalगतak, Olentzero, gazteria eta kirolak, hezkuntza eta gizarte ekintza kanpoan utzita) zatituko da eskaera egiten den egunean bertan erroldatutako biztanle kopuruaren artean, indarrean dagoen azken udalaren biztanle erroldaren arabera. Ratio altuena lortzen duenak 10 puntu lortuko ditu, eta hiruko erregela baten bidez gainerako puntuak banatuko dira. Lortutako puntuazioak dezimalak baditu, hurbilen dagoen zenbaki osora biribilduko da.

Proiektu guztiek, gutxienez, ehuneko 40ko finantzaketa propioa izan beharko dute. Finantzaketa propioetat jotzen da erakundeak bere baliabideetatik eta hainbat iturri publiko edo pribatutatik lortzea aurreikusten duena, zenbateko horretatik kanpo utzita Arabako Foru Aldundiari eskatzen zaion ekarpena.

10. Euskara erabiltzea programaren garapenean. 5 puntu.

Bost puntuak emango dira baldin eta, euskara bera proiektuaren funtsezko elementua izanik, proiektu osoa euskaraz garatzen bada. Bestela, ez da punturik emango.

11. Genero berdintasunaren ikuspegia sartzea programaren helburu eta ekintzen artean. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

- a. Argi eta garbi aipatzen dira berdintasun helburuak. 5 puntu.
- b. Berdintasuneko zenbait neurri dago. 3 puntu.
- c. Ez dago berdintasuneko neurririk. 0 puntu.

12. Programan tolerantzia eta kultura aniztasunaren ezagutza sustatzen duten helburuak eta ekintzak sartzea: 5 puntu.

- a. Argi eta garbi aipatzen dira. 5 puntu.
- b. Zenbait neurri dago. 3 puntu.
- c. Ez dago neurririk. 0 puntu.

Irizpide bakoitzari dagozkion puntuak batuketak gutzirako kopuru bat izango du emaitza, eta eskala honetara ekarrita, emaitza horren arabera dirulaguntza ehuneko adieraziko du, dirulaguntza kalkulatzeko oinarri hartutako aurrekontuaren arabera. Epaimahaiaren iritziz gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira dirulaguntzaren onuradun izango.

Balioespen handiena lortu duten erakundeei emango zaie dirulaguntza, betiere deialdian ezarritako aurrekontu zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

PUNTU KOPURUA	DIRULAGUNTZAREN EHUNEKOA
0 eta 50 bitartean	0
51 eta 65 bitartean	40
66 eta 75 bitartean	50
76 eta 100 bitartean	60

## 10. artikulua. Organo eskuduna eta ebazpena

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ekintza Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko organo eskuduna.

2. Balioespen Batzorde batek aztertuko ditu eskabideak. Batzorde horrek kontuan hartuko du otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, bere 3.7 artikuluan ezarritakoa. Hortaz, honako kide hauek izango ditu:

- Batzordeburua: Kultura zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.
- Batzordekideak: Kultura Ekintza Zerbitzuaren burua eta Kultura Zuzendaritzako bi teknikari.
- Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua, hizpidea izango duena baina botorik ez.

3. Balioespen Batzordeak, dirulaguntza emateko edo ukatzeko proposamenekin batera, txosten bat egingo du, non jasoko baita onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien zerrenda ordenatua.

4. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

5. Organo eskudunak bidezko ebazpena emango du, balioespen batzordeak proposatuta, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

